

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

337

3415/2016 EBAZPENA, 2016ko abenduaren 23koa, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko zuzendari kudeatzailearena. Honen bidez, Alfredo Rodríguez-Antigüedad Zarrantz jauna aldi baterako izendatzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko Neurologiako zerbitzu sanitarioko buru, lau urteko epe luzagarri baterako.

Ekainaren 7ko 2171/2016 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko Neurologiako zerbitzu sanitarioko buruaren lanpostua lehiaketaren bidez betetzeko.

Balorazio-batzordeak aurkeztu diren eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Alfredo Rodríguez-Antigüedad Zarrantz jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, hau erabaki da: pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko Neurologiako zerbitzu sanitarioko buru.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Alfredo Rodríguez-Antigüedad Zarrantz jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko Neurologiako zerbitzu sanitarioko buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Aldi baterakoa izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, eta luzatzeko aukera izango du, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru hirugarren arau komunean xedatutakoarekin bat, eta data honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2017ko urtarrilaren 9a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak epe hori amaitutakoan lanpostua utziko du, ez bada luzapena onartzen, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko, 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru hirugarren arau komunean ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kargutik kendu ahal izango dute, aldez aurretik kontrako espedientea badago, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru hirugarren arau komunean ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena.– Ebazpen hau interesdunei eta Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko Pertsonaleko Zuzendaritzari jakinaraztea.

2017ko urtarrilaren 20a, ostirala

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpen hau EHAAan argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2016ko abenduaren 23a.

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESiko zuzendari kudeatzailea,
SANTIAGO RABANAL RETOLAZA.